

ilast

20
URTE



**“IRRIA”
ETA KOLORETAKO
HEZIKETA**



...surfa, piraguismoa, ikastaroak, kontzertuak,
hizkuntzak, lehiaketak, kirolak, campusak...

Udan gelditu barik



...plan pila uda honetarako
eta zozketak,
hizkuntza-ikastaroetan,
saskibalo-i-campusetan,
mendi-ibilaldietan... begiratu
hemen: www.bbk.es

Eta **Athletic-eko
motxila hau opari***
Gaztedi Plana orain
irekitzen baduzu.

**BBK GAZTEDI
PLANA**



Hemen
gaitu-
zu

bbk²



*Sustapena indarrean egongo da,
gutxienez 300€ko saldoa duen kontua
irekitzen baduzu. Dagoeneko Gaztedi
Plana baduzu, gonbidatu lagun bat Plana
egitera, eta motxila bana eroango duzue.
Izakinak agortu arte.



- 3 ERREPORTAJEA: IRRIEN LAGUNAK ETA IKASTOLEN ELKARTEA
- 8 ELKARRIZKETA: JUAN MANUEL ESCUDEROKIN SOLASEAN
- 10 ELKARLANAREN INGURUAN ELKARTUTA XVIII. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK
- 14 ARGI BAT ARGANTZONGO IKASTOLAN
- 16 MUNDUARI ITZULIA 10 METROKO BELAONTZIAN
- 18 ANOETA ETA IRURA BAT EGINDA
- 20 EPERRA IKASTOLAK, 105 IKASLE
- 22 IKASTOLA, NOLA AZALDU

EDITATZAILEA:
EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
Ikastolen Etxea,
Erretazar bidea, 124
20018 DONOSTIA
Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILEA:
Zurine Mendizabal
aldizkaria@ehi.ikastola.net

ERREDAKZIOA:
Jokean Agirre eta
Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILEA:
Imanol Artola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILEA:
GERTU inprimategia,
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

MARTXOA 2011

189



GURE IKASTOLA ALDIZKARIA-K
20 URTE BETETZEN DITU

www.ikastola.net

ERREPORTAJEA



IRRIA ETA KOLORETAKO HEZIKETA

Ikastolen Elkartearen Irrien Lagunak
KLUBAREN ALDE



IRRIA ETA KOLORETAKO HEZIKETA

PIRRITX eta PORROTX Lasarteko euskara talde batetik sortu ziren eta beren lan egiteko modua behetik gorakoa izan da beti, baina hasita daude proiektu handiekin amets egiten. Ametsik handienetakoak **Irrien Lagunak** izena du. Hamar urte barru euskal Disney txiki bat izan liteke. Hasieran, Elkar, Katxiporreta eta Berria zeuden proiektuaren sortzaileen artean. Orain Ikastolen Elkarteak ere oinarrizko proiektu hezitzailetzat jo du.

RRIEN LAGUNAK KLUBA gauzatu gabeko amets bat da oraindik, baina oinarri sendoak ditu: Euskal Herriko ume erdiek ezagutzen dituzten pertsonaia batzuk, ikuskizun bat, aldizkaria eta webgunea. >>>>>
>>> irrienlagunak.com webgunean sartzen denak atalburuan zenbait sail ikusiko ditu: telebista, gai zehatzen

inguruko atalak, ikus-entzunezkoak eta denda, esate baterako. Batzuk abian dira, eta beste batzuk, laster batean martxan jarri nahi dituztenak dira, baina webgunean nabari da ametsaren tamaina zenbatekoa den.

“Jerusalemen izan ginen uztailean, eta hiriaren alde zaharrean Disneyren pertsonaien elastikoak ikusi genituen: Mickey Mouse, Edurnezuri eta antzeko-enak. Mundu osoko umeek ezagutzen dituzte. Guk gure txikian antzeko mundu bat eraiki nahi dugu gure haurrentzat, eta horretarako baliabide guztiak erabiliko ditugu: barnetegi bat ari gara prestatzen Zerainen, telebistara egin nahi dugu jauzia, ikus-entzunezkoak baliatuko ditugu eta egunen batean beharbada urrats sendoagoak egiteko gauza izango gara”, esan zuen **Porrotxek**.

Euskal Herrian Disneyrenak bezain ezagunak bihurtzeko zorian daude Irrien Lagunak Klubeko pertsonaiak: Pupu eta Lore, Pirritxen ume jaio berriak, Porrotx (haurren ikuspuntua bere egiten duen pailazo), Largabista basozaina, Marimotots (neska alai eta naturazalea), Marikalanbre (txikitan kalanbre bat jaso zuelako ahalmen magikoak dituen neska zientziatzalea) edo Martinber sortzailea.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots berezi samarrak dira eta Irrien Lagunak klubaren sorrera ere berezi samarra da. *“Aiorak (Pirritxek) umeak izan ditu, bi mutiko. Guk, azken urteotan, bizitzan ikusten ditugun gaietatik ikasi eta ematen dugu: gaixotasuna, familia izaera ezberdinak, etorkinak, ekologia... Aiorak umeak izan zituenean zera pentsatu genuen, hala nola, ume horien heziketa ez zela soilik gurasoen ardura, edo eskola sistemarena soilik, herri osoarena baizik, gu denona, eta horrela jaio zen gure proiektua eta horrela jaio ziren klubeko pertsonaiak”*, esan zigun Porrotxek. Horrekin batera, umeen osasunaz arduratzen den Tiritatxo pediatra, izadiatzalea eta ekologiaz arduratzen den Largabista basozaina, zientzia lantzen duen Marikalanbre eta kulturaz arduratzen den Martinbertso ere aipatu zituen.

Irrien Lagunak badu Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ondaretik ere zerbait. *“Batetik*

bestera ibiltzen gara gu, etenik gabe. Edozein egunetan istripu bat izan eta bidean gera gaitzek. Horregatik, askoz zabalagoa eta garrantzitsuagoa den zerbait sortu nahi dugu. Iraungo duen zerbait. Norbanakoen gainetik dauden proiektu estrategikoak behar ditu euskalgintzak. Disneyren sortzailea hil zen, baina haren munduak jarraitu egiten du”, nabarmendu zuen “Porrotx”ek. Pailazoarena egiten igarotzen ditu eguneko ordurik gehienak, urtean zehar izaten baititu bi emanaldiko egunak ere. Horregatik, beharbada, helduak



“PERTSONA OROK DUEN HEZIKETA ON BAT JASOTZEKO ESKUBIDEAREN UTOPIAK ARDURAK PARTEKATZEA ESKATZEN DU”.

hitz egiten duenean ez du txisterik egiten eta serio jarraitzen du hizketan.

“Elkarlanean jarraitu nahi dugu orain artean bezala. Arazoekin, gaixotasunekin, beharrek edota elkartasunarekin lotutako elkarte ugari dago Euskal Herrian. Horietako asko eta asko, gainera, elkarte txikiak dira, ikusezina, haien beharra hurbil sentitzen dugun arte, baina asko dute emateko. Aurrera begira elkarte horiekin kultur elkarte bat sortu nahi genuke gure proiektuan leku bat izan dezaten. Ederra izango litzateke, esate baterako, gorren hizkuntzan ikus-entzunezko batzuk egitea”, jarraitu zuen Porrotxek.

BALOREAK AGERIAN

Dysneyren filmek “amerikar bizimodua”ren goratarrea egiten dute eta, ikertzaile askok ikertu dutenez, ezarian bada ere, neokolonia-

lismoa bultzatzen dute. Irrien Lagunen Klubeko pertsonaiek oso bestelako baloreak sustatzen dituzte, eta oso agerian gainera. Euskara eta elkartasuna dira goratzen dituzten balore nagusiak, eta umeek euskal kulturaren esparru ezberdinak erakusten saiatzen dira. Aniztasuna da hirugarren balorea, eta horren harira umeek zera adierazten saiatzen dira, hala nola, Euskal Herrian pentsaera, kolore eta kultura ezberdinetako jendea bizi dela; aniztasuna balore bat dela aldarrikatzen saiatzen dira, alegia. Bizikidetzari buruzko kultura zabaltzen ere ahalegintzen dira. Berdintasuna, elkarrizketa, elkartasuna, askatasuna, natura zaintzearen beharra eta beste hainbat balore ere oso agerian daude Irrien Lagunak klubaren jardueran.

“Gaur telebista bidez 40 bat kate sartzen zaizkigu etxean eta horietako batzuk umeek bakarrik zuzenduak dira. Horiekin ezin gara lehiatu bitartekoetan, baina bai baliotetan. Guk gure herritik jaiotako pertsonaiak eman nahi dizkiegu umeek. Gure proiektua euskararen, alaitasunean eta balore bezitzaileetan dago oinarrituta, eta horiekin bat datozen elkarteekin egin nahi dugu lan. Horregatik ditugu ateak zabalik Ikastolen Elkartearentzat ere”, esan zuen.

Katxiporreta pailazo taldeak ikuskizunak kudeatzen jarraituko du. Irrien Lagunak Klubak bere diru-iturriak izango ditu, merchandising-a esate baterako. *“Irrien Lagunak klubeko kide izatea doakoa da, eta abantailak izango ditu. Esaterako, urtean behin klubeko kideekin festa handi bat egin nahiko genuke. Webgunearen bidez lehiaketak egin eta festa horretan diplomak banatuko ditugu. Baina lau diru-iturri izango ditugu: ‘Irria’ aldizkariaren harpidetzak, publizitatea, diru-laguntzak eta merchandising-a. Azken gaia aipatzen dugun bakoitzean granoak ateratzen zaizkigu, baina heldu egin behar diogu. Beharrezkoak diren produktuak, bestela ere erosi egingo direnak, ahal bada hemen eginak; eta euskararekin lotura izan behar dute”*, esan zuen Porrotxek.

Aiora Zulaika “Pirritx”ek esan zigunez, benetako bere bi mutikoen hamar hilabete dituzte. Pupu eta Lorek gutxiago. *“Guk suerte hori daukagu, nahi dugun adina dugula, alegia. Porrotxek ere batzuetan 7 urte ditu eta hurrengoan 4 bakarrik. Umeak beztea lan zaila da biren zat bakarrik, eta bidelagunak bilatu nahi ditugu. Heziketa ez da etxeko lana bakarrik, eskola eta lagunen*

lana ere bada. Gainera, gure mundua mer-meladazkoa da, oso goxoa. 'Hazi eta bezi, goxo-goxo bi gerezi' esan obi dugu. Beti muxuka gabiltza, baina aldi berean zabaldu beharreko baloreak sustatzen", esan zuen Aiorak.

Pirritx eta Porrotxen jardunean badago gai bat oso nabarmen lantzen dutena: gaitotasunarena. "Nork ez du bizi izan minbizi bat familian edo inguruan? Guretzat mingarria izan da, baina aldi berean oso aberasgarria ere bai gai horrekin egin dugun lana", esan zuen Aiorak.

Eta, datorren urtean? Herrietatik deika hasten direnean, zer ikuskizunekin joango zarete? "Datorren urtekoa pentsatuta daukagu dagoeneko. Aurten Tiritatxo, Largabista, Lagun, Marikalanbre eta Martinber eman ditugu ezagutzera. Datorren urtean elkartasunean oinarritutako ikuskizuna emango dugu segur aski. Kanta bakoitza elkartasunaren adierazgarri diren pertsona edo elkartei eskaintzea daukagu pentsatuta, baina zehaztuko dugu hilabeteek aurrera egin ahala", esan zuen Porrotxek.

"IRRIA", URTEAN HAMAR ZENBAKI

Gari Berasaluze aldizkariaren koordinatzaileak dioenez, 2 urtetik 8ra bitarteko adin tarteko haurrentzat da batik bat aldizkaria, baina ez horientzat bakarrik. "Pupu eta Lore umeen istorioak txikienentzat dira; Marikalanbrearen zientziaren inguruko abenturak, aldiz, helduxeagoentzat. Aldizkariaren barruan ere badaude aukera ezberdinak. Haurrek ez ezik, gainera, guraso eta irakasle askok ere oso gustura irakurriko duten aldizkaria izatea nahi dugu", erantsi zuen.

Abiatu eta berehala lortu zuten harpidedunen babesa, baina hasierako lehen etorria baino harrigarriagoa izaten ari omen da ondoren astero astero harpideak iristen ari direla ikustea. Horren arrazoia pailazoek egiten dituzten emanaldiak dira. "Kluba zer

ELKARRIZKETA IBARRAKO POLIKIROLEGIAN EGIN ONDOREN. IDEA BAT OSO ARGI GELDITU ZEN: NORBANAKOAN GAINETIK PROIEKTU ESTRATEGIKOAK BEHAR DITUELA EUSKALGINTZAK.



den euskarazko komunikabideetan asko agertu arren, ezezaguna da gehienentzat, eta pailazoan emanaldietan ezagutu ondoren ari da jendea aldizkaria zer den ikusten eta interesa agertzen", dio Berasaluzek, harpide kopuruak gora egingo

duela sinetsita. Puntako idazle, marrazkilari eta bertsolariak dituzte lanean, eta datorren hiletik aurrera Joseba Sarrionandiak ere hartuko du parte, bi orrialde egingo baititu haurrentzat idatzitako ipuinekin. **IKASTOLA**

KOLDO TELLITU

(Ikastolen Elkartearen lehendakaria)

"Ikastolen mugimenduak lantzen dituen baloreak partekatzen ditu Irrien Lagunak Klubak eta horregatik erabaki dugu bultzagile gisa klubean sartzea. Euskararen erabilpenarena, esate baterako, gure kezka nagusienetako bat da. Euskara gelatik atera behar da eta esparru berrietara eraman, eta horretan elkarrekin gauza asko egin ditzakegula iruditzen zaigu. Ikastolok, bestalde, beti izan dugu garbi gure zilborrari begira egonda ez dugula ezer egiten eta gisa honetako ekimenak bultzatu behar ditugula. Oraingoan Irrien Lagunak da bultzatu nahi duguna, baina beste kasu batzuetan Euskal Unibertsitatea izan da edo Gaindegia, bi adibide bakarrik aipatzearren".

"UMEEN OSASUNAZ ARDURATZEN DEN TIRITATXO PEDIATRA, IZADIAZ ETA EKOLOGIAZ ARDURATZEN DEN LARGABISTA BASOZAINA, ZIENTZIA LANTZEN DUEN MARIKALANBRE ETA KULTURAZ ARDURATZEN DEN MARTINBERTSO".

UN DISNEY CON LABEL VASCO

Los payasos Pirritx, Porrotx y Marimotots presentaron en noviembre del año pasado Irrien Lagunak, un club para los peques de casa que con el tiempo reconvertirá en un proyecto comunicativo amplio. La revista mensual y la web ya están en funcionamiento y paulatinamente vendrán los productos audiovisuales, la televisión y una tienda virtual. Puestos a soñar, los payasos sueñan ya con parques temáticos que ayudarán a divulgar los valores que

fomentan. El objetivo del proyecto es ganar nuevos espacios lúdicos para el euskara y está sustentado sobre un discurso pedagógico que habla del valor de la pluralidad, el respeto a la diferencia, la convivencia o la necesidad de cuidar la naturaleza. Katxiporreta, Elkar y Berria fueron las primeras entidades que impulsaron esta iniciativa, y es ahora Ikastolen Elkarte quien reconoce a Irrien Lagunak como un proyecto educativo de gran interés.

UN DISNEY LABELLISÉ BASQUE

Les clowns Pirritx et Porrotx présenteront à Durango leur projet de Club d'Amis (Irrien Lagunak) qui deviendra petit à petit un projet de communication de plus grande ampleur. Le mensuel et le site web ont déjà vu le jour, puis ce sera au tour des produits audiovisuels, de la télévision et d'une boutique. Et les clowns rêvent déjà à un parc thématique. L'objectif du projet est de gagner de nouveaux espaces ludiques pour

l'euskara et de développer un discours pédagogique soulignant des valeurs comme humanité, respect des différences, vie en communauté ou amour de la nature. Après Elkar et Berria, c'est peut être le tour d'Ikastolen Elkarte de soutenir le projet.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Ate irekiak

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MARTXOAK 17 osteguna, 17:30

ORDIZIA MARTXOAK 26 larunbata, 11:00

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI APIRILAK 2 larunbata, 11:00

IRUN MARTXOAK 3 osteguna, 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA MARTXOAK 3 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

VITORIA-GASTEIZ MARTXOAK 12

larunbata, 10:30. Europa Biltzar Jauregia.

sure MUndura
etortzeko prest?



Juan Manuel Escudero

“Lider karismatikoaren ikuspegia zaharkitua dago; ezinbestekoa da irakaskuntzan lidergoa partekatzea”

Didaktikan eta Eskola Antolakuntzan katedraduna da Juan Manuel Escudero Murtziako Unibertsitatean. Lidergo partekatuari buruz hitz egitera etorriko da Gasteizen egingo diren Jardunaldi Pedagogikoetara eta, aurrerapen gisa, galdera batzuk egin nahi izan dizkiogu.

Militantziak, konpromisoak eta ezkerreko diskurtsoak ahuldu edo desagertu ahala pragmatismoak hartu duela esan izan duzu haien lekua. Ezinbestekoa al da irakaskuntzan aldaketak ekar ditzaketen aukera berriak bilatzen eta irudikatzen jarraitzea? Gaurko krisialdiak ekarri dituen gertakarietara begirada bat botatzea aski da ezkerreko politikak, noski, eta baita diskurtsoak ere desagertzeko zorian daudela ohartzeko. Heziketak, giroak berehala kutsatzen duen sektorea izaki, berehala jasan ditu aurrekontu murrizketak, eta lehen egiten zirenean justizia eta berdintasun promesa haiek ahaztu samarrik daude gaur. Horien lekuan ideia, balore eta politika neoliberalak nagusitu dira, beste aukera posiblek ez balego bezala. Pragmatismoak agintzen du gaur hezkuntza. Kalitate lehiakorarekin itsututa gabiltza eta bikaintasuna pribilegio gisa ulertzen dugu. Espainiako datuei bagagozkie, eskolarrean-porrotean ditugun zifrek atzera goazela erakusten dute. Egoera horren aurrean ezinbestekoa da irakastxe hobea batzuen aldeko,

irakasle hoberen, familien eta komunitatearen partaidetzaren aldeko apustua egitea.

Behin baino gehiagotan gogoratu izan duzu berrikuntza pedagogikoen inguruko diskurtsoak ez direla askotan irakastxearen antolakuntzari lotuta garatzen, ez dutela irakastxe osotasun gisa ulertzen, ez direla heziketa komunitatean txertatzen. Eskolaren antolaketa ez al dizkigu burokraziaren eta arautegi zorrotz egien mamuak gogora ekartzen? Zein da zuk proposatzen duzun eskolaren antolaketa eredua? Gure tradizioan heziketa mailako berrikuntzak irakasleekin lotzen ditugu gehienetan, eta tarteka talde edo mugimendu batzuekin. Oso gutxitan lotzen dugu berrikuntza eskola baten antolakuntzarekin. Berrikuntza, irakasle jakin batzuen militantismoari zor zaiola uste izaten dugu eta ez dela eskola sistema osoaren emaitza. Irakastxeak makinaria burokratikoak bailiran ikusten ditugu eta, ikuspegi administratibo horretatik begiraturatuta, albo batera uzten ditugu ikasle

guztiengandik ahal den emaitzarik onenak lortzeko beharrezkoak diren ideiak, bizipenak, amets partekatuek eta konpromisoak. Ahalegin guztia egin beharko genuke gaurko irakastxeak erakunde bizi, adimendun, parte-hartzaile eta demokratikoak izan daitezela. Horrela bakarrik lortuko genuke erakunde horien barruan orduak ematen dituzten pertsona txiki horien aztarna positiboak eta iraunkorrak uztea. Gaur diren baino irekiagoak izan behar dute, gazteentzako abegikorragoak, pertsonalizatuagoak. Asko dira eskolaren antolaketa goitik behera aldatu behar dela aldarrikatzen ari diren ahotsak, aldaketa bati esker lortuko baita hiritar aktibo, parte-hartzaile eta arduratsuak hezteak.

Jardunaldi Pedagogikoetan lidergo partekatuaz hitz egin behar duzu. Nola definituko zenuke lidergo mota hori? Nire asmoa lidergo partekatu ikasketa taldeen koordinadatan kokatzea da. Irakastxe bakoitzak kolaborazio aukerak eskaini behar ditu, partaideen arteko harremanak

aberagarriak izan daitezela. Irakastxe bakoitzak ikerketa, gogoeta eta kritika prozesuak bultzatu, eta irakasleagoaren gaitasuna garatu behar du. Pauso horiek emango balira, heziketa hobetzen hasiko ginatke. Testuinguru horretan hitz egin behar dugu lidergo partekatuaz. Esaera zaharrak dion bezala, denok esku bat luzatzen ez badugu, denok bihotza jartzen ez badugu, eskola leku hits bihurtuko dugu. Pertsona orok duen heziketa on bat jasotzeko eskubidearen utopiak ardurak partekatzea eskatzen du. Garai batean esan ohi zen maisu bakoitzak zuela bere lan egiteko modua. Gure ikuspegitik oso urrun dagoen leloa da hori. Irakasleek ondo prestatutako profesionalak izan behar dute, elkarrengandik ikasten jakin behar dute, eta irakasteko ardurak banatzen eta bere gain hartzen ere bai. Eskola antolakuntzaren teoriko batek



JUAN MANUEL ESCUDERO DIDAKTIKAN ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZAN KATEDRADUNA DA MURTZIAKO UNIBERTSITATEAN. MARTXOAREN 15EAN, XVII. JARDUNALDI PEDAGOGIETAKO LEHEN EGUNEAN IZANGO DA HIZLARI, IREKIERA OFIZIALAREN ONDOREN, GOIZEKO 9:45ETAN.

Eskola-porrotean ditugun zifrek atzera goazela erakusten dute. Egoera horren aurrean ezinbestekoa da ikastetxe hobe batzuen aldeko, irakasle hoberen, familien eta komunitatearen partaidetzaren aldeko apustua egitea.

esaten zuen ez zuela ezagutzen zuzendari txarra zuen eskola onik eta ez zegoela zuzendari on bat zuen eskola txarrik. Horren garrantzitsua al da zuzendariaren figura? Zein dira zuzendariaren egitekoak? Egia da; esaldi hori askotan errepikatu izan da, anglosaxoi jatorriko ikerketetan bereziki. Gure kulturatik urrun samar dauden ereduak dira, eta zuzendaria ulertzeko modua ere ezberdina dute herrialde horietan. Ez dut zalantzan jarri nahi mezu horren balioa, baina gure zuzendariak, eskola publikoetan bereziki, beste koordinada batzuekin egiten dute lan: aginte gutxiago dute eta erabakiak hartzeko orduan eskumen urriak. Gure eskola publikoetako zuzendariak ez dute irakasleen hautaketan parte hartzen eta ez dute gela barruan egiten duten lanari buruzko ardura zuzenik. Ez

dute irakasleen lana ebaluatzen ere eskurik hartzen. Arraroa badirudi ere, gure inguruko zuzendaritza taldeek ez dute beren irakasleei kontuak eskatzeko "baimenik" ere. Gauzak horrela dauden bitartean, zaila da zuzendari on bat duten ikastetxeak hobeak diren edo ez esatea, horretarako ikerketak egin beharko bailirateke. Nire ustetan beste egiaztapen bat egin daiteke: irakasle onak dituzten ikastetxeak dira onenak. Ez diet esan dudanarekin zuzendariaren egitekoen dute garrantzia kendu nahi. Garrantzitsua da erabat irakasle talde bateratuak sortzeko eta bultzatzeko zuzendariak dute egitekoa; talde horiek eskola proiektu baten zerbitzura jar ditzakete. Berrito esango dut: ez diet garrantzirik kendu nahi zuzendari taldeei, baina zuzendariak ez dute gaur egun lider karismatiko izan

beharririk. Partaidetza demokratikoa bultzatu behar dute, eskola erakunde bezala gobernatzeko oinarriko irizpidea delako. Eta gaintitu gabe daukagun arlo bat kontuak ematearena da. Eskola barruan irakasleei eskatu behar zaizkie kontuak, baina baita zuzendariari, ikuskariei, kudeatzaileei edo administrazioari ere. Bakoitzak egiten duenaren, hartzen dituen erabakien berri eman behar du.

Eman al daiteke zuzendaritzaren lidergorik, babesa ematen dion talderik gabe, proiektu garbirik gabe, lanerako giro egokirik gabe? Zein da zuzendaritza taldeko beste kideen

egitekoa? Zein da irakaslearen papera? Zein eratako lidergoa bereganatu behar du? Lidergoak taldekoa, banatua eta partekatua izan behar badu, ezin du batek bere kabuz, bakarka, lidergo hori gauzatu. Zuzendariak lider magiko bezala ikusten zituen ikuspegia zaharkitua geratu da. Taldeko filosofiaren aldeko jarrerak ari dira nagusitzen. Horregatik, lidergo egoki batek itunak eskatzen digu, eztabaidak, ideiak trukatzeko eta sinergiak bultzatzeko. Bakarka lortu ezin diren helburuak lortu daitezke bide horretatik. Teorian bederen irakasle guztiak hartu behar dute parte lidergo partekatuan, nahiz eta praktikan bakoitzaren eskubide eta betebeharrak zehaztu egin beharko diren. Irakasle oro da bere ikasleekin dituen harreman pedagogikoetan liderra, eta liderra izan daiteke halaber bere kideekin eratzen dituen harremanetan ere. Ikastetxeko proiektuetan parte hartze

Gure eskola publikoetako zuzendariak ez dute irakasleen hautaketan parte hartzen, eta ez dute gela barruan egiten duten lanari buruzko ardura zuzenik. Ez dute irakasleen lana ebaluatzen ere eskurik hartzen.

zuzena duen unetik lidergo partekatua gauzaten ari da, familiekin harremanak mantentzen dituen ere bai.

“Profesorado”aldizkarian argitaratu zenuen lan batean esaten zenuen eskola publikoa, une honetan duen diseinuarekin, irakasle bakoitzaren autonomiaren gorazarrean oinarritzen dela. Ikastolen eredu behar bada kontrako da: proiektu handi batean txertatuta daude ikastolak, helburu garbiak ditu eta barruko kohesioa ere handiagoa izan daiteke. Zer iritzi duzu eredu hauei buruz? Nik ez dut ikastolen eredu barrutik ezagutzen. Dakidanez, ikastetxe bakoitzak proiektu partekatu baten inguruan lortzen du bere barne kohesioa, eta bertan lan egiten duten irakasleek proiektu horrekiko konpromisoa dute. Egia da eskola publikoaz aipatu duzun eredu horren alternatiba bat dela, baina irakaskuntza gauzak oso konplexuak dira eta pedagogiari buruzko literaturak erakusten du talde-proiektu batekiko atxikimendu eta fideltasun gehiegizkoak ere bere arriskuak dituela: pentsatzeko ahalmena apaldu dezake, interpretatzeko gaitasuna urritu eta zurruntasunera eraman gaitzake, eta irakaskuntza goitik datozen norabide batzuen aplikazio soila bihurtuko litzateke. Ene ustez, gai honetan ere erdibidean dago egia. •

¿CADA MAESTRILLO SU LIBRILLO?

Juan Manuel Escudero es uno de los más cualificados conocedores de los sistemas educativos. Conjugó la investigación en la Universidad de Murcia con cursos y conferencias que imparte en facultades y cursos de formación del profesorado. Acude a las Jornadas de Pedagogía con una conferencia sobre el liderazgo compartido, un tema que se ciñe al programa, puesto este año versará sobre la necesidad del trabajo en equipo y el aprendizaje compartido. En esta entrevista, que puede servir de prólogo a las jornadas, recuerda que el concepto de director de centro como un líder carismático es ya una figura del pasado y aboga por un liderazgo compartido entre todos los componentes de la comunidad educativa.

A CHAQUE ENSEIGNANT SON MANUEL?

Juan Manuel Escudero est l'un des meilleurs spécialistes des systèmes éducatifs. Chercheur à l'Université de Murcia, il est professeur et maître de conférence dans le domaine de formation du professorat. Il propose pour les Journées Pédagogiques une conférence sur le leadership partagé, un thème phare du programme, plus axé cette année sur la nécessité du travail d'équipe et de l'apprentissage mutuel. Dans cet entretien, qui est en quelque sorte une introduction des Journées, il rappelle que le concept de directeur en tant que leader charismatique est dépassé et plaide pour une direction partagée entre tous les membres de la communauté éducative.

ELKARLANAREN INGURUAN ELKARTUTA

Adar asko dituen gai bat jorratuko dute aurten, martxoaren 15etik 17ra bitartean Gasteizeko Europa Jauregian Ikastolen Elkarteak etapa guztietako irakasleentzat antolatuko dituen XVIII. Jardunaldi Pedagogikoeak. “Elkarrekin eraiki/Elkarrekin lanean/Elkarrekin irakatsi, elkarrekin ikasi” izango da goiburua eta lelo horien haritik sortuko diren gaiak aztertu ahal izateko kanpoko lau adituk eta beste hainbat profesionalen ikastoletako zein kanpoko esperientziak azalduko dizkigute. Etapa guztietako irakasleek erabilgarritasunari begiratzen diotenez, lan-tailer praktikokoak antolatuko dira. “*Elkarrekin irakatsi eta ikasi*” leloaren inguruan hainbat proposamen jaso genituen irakasleen aldetik eta guztiei erantzun nahirik, *egitaraua zabaltzen saiatu gara*”, esan ziguten antolaketa taldeko kideak diren **Belen Baztarrikak eta Manu Aurrekoetxeak**. Elkar lanean oinarritzen den erakundea da ikastola eta gero eta jende gehiagok lidergoa hartzea eskatzen du. Eta lidergo partekatuz hitz egingo digu lehen egunean Juan Manuel Escudero, **Murciako Unibertsitateko katedradunak**. Ikastolak berrasmatu eta garai berrietara egokitu behar ditugu eta gai horretaz hitz egingo du **Joaquin Gairín Sallánek**, **Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedradunak**, bigarren egunean. **Nola neurtu irakasleen jardun profesionalaren egokitasuna?** Nola auto-ebalatu dezake irakasle batek bere lana? Galdera horiei erantzuten saiatuko da hirugarren egunean mintzatuko den **Federico Malpica**, **Bartzelonako Escalae** (irakaskuntzaren eta ikasketaren kalitate sistemak lantzen dituen erakundea) zuzendaria. “*Kanpoko adituen hitzaldiei eskotan ez diegula behar adinako zukurik ateratzen, hori*

da irakasle askok jardunaldietan izaten duten irudipena eta hitzaldi horien baliagarritasun praktikoa bideratzeko goizero lan-tegi batzuk antolatuko dira taldeka (lau talde: batean zuzendari eta koordinatzaileak eta etapaka beste hiruak) eta alde zurretik gidoi bat banatuko die hizlariak talde bakoitzari eta zalantzak argitzera agertuko dizkie gero taldez taldez mugituz”, esan zigun Belenek. •

Izena emateko, eta informazio gehiago nahi izanez gero:

www.ikastola.net



Museo bat baino askoz ere gehiago!



ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- Museoa handitu dugu, GAIA: Energeia eta Natura atal berriekin. **BERRIA**
- 170 esperimentu interaktibo baino gehiago.
- Planetarium Digitala.
- Planetarium Txikia.
- Simulagailua: Errusiar Mendia.
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta.
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Zientziaren kutxaGunea

Mikeletegi Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia

Tlf: 943 012 478. www.mirammon.org


kutxaespacio@kutxagunea.org

parte de ti



3. ekar ilustrazio eta tipu lehiaketa

oinarriak: www.elkar.com-en eta
elkar sareko liburu denda guztietan



SORTZAILEA BAZARA

III. ELKAR ILUSTRAZIO ETA IPUIN LEHIAKETA

Marrazkiak egiten esku onekoa bazara edo idaztea gustatzen bazaizu, hauxe da zure aukera: Mixel Murua idazleak "Joxetxo hargina" ipuina idatzi dizu, zuk marrazkiak egin diezazkiozun; eta Alex Orbe marrazkilariak "Mantangorri" ilustrazioa marraztu du zuk ipuin bat idatz dezazun. Haur Hezkuntzako bigarren mailatik hasi eta Lehen Hezkuntzako laugarren mailara arteko ikasleek parte har dezakezue lehiaketa horretan.

Hiru maila eratu dira:

Ilustrazioan

- A maila 2005-2006an jaiotakoak
- B maila 2003-2004an jaiotakoak
- C maila 2001-2002an jaiotakoak

Ipuinean

- A maila 1999-2000an jaiotakoak
- B maila 1997-1998an jaiotakoak
- C maila 1995-1996an jaiotakoak

Ipuinak ordenagailuz idatziak egon behar dute (1.500 eta 2.000 karaktere bitartean). Lanak bidali aurretik, sortzailearen datuak idatzi behar dituzue atzeko aldean. Izen-abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefono zenbakia dira derrigorrean eman beharreko datuak.

Ipuin zein ilustrazio lehiaketako lan guztiak **apirilaren 15a** baino lehen aurkeztu behar dituzue. Elkar-eko liburu dendaren batera eraman ditzakezue lanak, edo helbide elektronikoz nahiz posta arruntez bidal; eta bestela, eskaneatu eta webgunera kargatu daitezke.

Informazio gehiago behar baduzu
www.elkar.com
webgunean.



araba:



ARGI BAT ARGANTZONGO IKASTOLAN

Gaztela Leongo Gobernuak kontzertazioa eman zain daude

Urteak eman dituzte Eusko Jaurlaritzara bueltaka, eta ez dute lege zirritzurik aurkitu. Azkenik, Gaztela Leongo Gobernuak eman die Haur Hezkuntzako bigarren zikloko (3-6 urte) bi gela irekitzeko baimena, eta maiatza baino lehen kontzertatzea espero dute.

Gaztela Leongo Gobernuak legeztatu du Argantzongo ikastola. Abenduko buletinean agertu zen "ikastetxe pribatu gisa baimenduak gaudela", Alfredo Angulo ikastolako lehendakariak gogoratu zigunez. "Behin baimena eskuetan edukita, bigarren pausoa bi gelaren kontzertazioa eskatzea da. Pauso hori eman dugu eta maiatza baino lehen etorriko zaigu erantzuna. Urteak eman ditugu finantziazio egonkorrik gabe eta arnasbide handia izan

liteke hori guretzat. Behin 3-6 urtekoen bi gelak finkatzen ditugunean, 0-3 zikloa legeztatzekeo tramiteekin hasiko ginateke", jarraitu zuen ikastolako lehendakariak.

Hiru urteik seira bitarteko bi gela horiek ikastola berrian daude, eta 0-3koek Udalak utzitako ondoko eraikin zaharrean jarraitzen dute.

Gaztela Leonen bada beste ikastetxe bat antzeko kasutzat har daitekeena: Bierzokoa. Bertako jatorrizko hizkuntza galegoa

izaki, hizkuntza hori erakusten duen eskola elebidun bat dago. "Inguruko erkideetako hizkuntzak ematea ahalbideratzen duen dekretu bat aurkitu genuen. Dekretu horren arabera funtzionatzen du Bierzoko eskola elebidunak. Hala ere, ez dakigu dekretuak guretzat balioko duen. Ikuskariak noiz etorriko zain gaude", erantsi zuen Ekaitz Lotina ikastolako zuzendariak (zuzendaritza Saioa Urizarrekin partekatzen du, bi irakasle

daudelako zikloan egun erdi bana lan egiten).

Haur Hezkuntzan 30-40 ume edukitzea ontzat ematen dute ikastola txiki honetan, nahiz eta ahalik eta ume gehien matrikulatzea (eta beraz, euskalduntzea) duten helburu. "Datorren ikasturtean 4-5 urtekoen gelan 10 haur eta 3 urtekoen gelan beste hamar izango ditugu. Hortik behera beste hamabost bat izango ditugu. Datorren ikasturteari buruz ari gara hizketan, kontzertazioak



urtebete aurretik eskatu behar izaten direlako", gogoratu zuen Ekaitzek.

UMEAK EUSKARAZ Burgosen eta Valladoliden egin dituzte tramiteak. "2003an zabaldu zen ikastola 11 umerekin

Udalak utzitako lehen eskola izandako eraikin zaharrean, egokitzapenak egin ondoren. Hurrengo ikasturterako txiki geratu zitzaigun, eta Udaletxe beheko solairuan jarri genuen gela bat, ikastola berria 2006an inauguratu genuenera arte. Orain lau hilabetetik bi urtera artekoak eraikin zaharrean daude, bi urteko gela bat ikastola berrian dugu, eta beste gela bat ere bai 3 eta 4 urtekoena. Aurten 32 ume dira guztira”, jarraitu zuen Ekaitz Lotinak.

Harrigarria egiten da Argantzongo ikastolan, guraso gehienak eraldunak izanik, umeak jolas orduetan euren artean euskaraz egiten entzutea. “Hori izan da gure apustua, beren artean normaltasun osoz euskaraz egiten jartzea, eta lortzen ari gara. Beste urte batzuetan ere lortu izan da, baina aurten bereziki pozik gaude beren artean ia ehuneko ehunean euskaraz egiten dutelako. Motibatzen saiatzen gara, baina oso era naturalean lortu da hori eta maila ona ari dira hartzen. Sekulako lorpena da hori. Hamarretik zazpi ez daukate guraso euskaldunik. Kaleko hizkuntza nagusia gaztelania den herri



honetan, pixkanaka bada ere, euskararen presentzia gora doa”.

Argantzun herri berezia da. Herriko sarreran dagoen kartelak adierazten duen bezala, Gasteizera 18 kilometro ditu eta Burgosera 94. Trebiñoko Konderriko beste herriek bezalaxe, harreman estuagoa izan da beti Arabako hiribururekin Gaztelakoarekin baino.

“Gero eta herri gehiagotatik datozkigu umeak. Hasieran Tuyotik etortzen zen bakarren bat; orain Konderriko zein Araba ofizialeko herri zenbaitetatik datoz, eta Mirandatik bat ere bai. Batzuk euskara maite

dutelako datoz, besteak euskara tresna interesgarria delako Erkidegoan lan egiteko, eta beste batzuk oso giro ona ikusten dutelako ikastolan. Badaude hemen aita eta ama Burgoskoak dituzten umeak, eta nagusienak

Armentia eraman dituzte. Ikastolekin proiektuarekin bat egitera iritsi dira”, esan zuen Alfredo Angulok.

Lehen Hezkuntza egitera Gasteizko Armentia ikastolara joateko, ordea, ez dute autobusik. “Saiatu gara behin eta berriz eskola publikoek erabiltzen dituzten autobusak erabiltzeko baimenak lortzen, baina ez dugu lortu, eta gure ikasleak txikiegiak dira trenean edo lineako autobusean bakarrik ibiltzeko. Hori da gure ikasleek ikastolan jarraitu ahal izateko duten arazorik larriena. Sailez sail ibili gara Lakuan eta ez diogu arazoari konponbiderik aurkitu. Egunero 22 hur joaten dira Gasteizko hiru ikastetxetara. Besteek garraioa badute eta gurek ez. Armentia joaten diren ikasleen gurasoek konpondu behar izaten

dute elkarrekin umeak eraman eta ekartzeko”, erantsi zuen Alfredok. Ikastola sortu zenetik Udaletxearen bidez eman dizkiote diru-laguntzak 0-3 ziklorako, baina diru kopuru hori jaisten joan omen zaie. “Ikastolen Elkarrearen laguntzari eta gurasoek zein irakasleek egin duten lanari esker mantendu da ikastola. Irakasle kopurua ere murriztuz joan gara eta oso larri ibili gara guztiok. Kontuan izan behar da ikastola berriaren mailegua dugula gainean eta gurasoen kuotak horri erantzuteko behar ditugula. Kontzertazioa ezinbestekoa dugu, ondorioz”, esan zuen Alfredok.

2001ean Araba Euskaraz bat antolatu zuten eta 2007an beste bat. Zazpi urtetan familia asko pasatu dira ikastolatik eta horrek herrian giro bat sortu du.

Argantzunek 850 bizilagun inguru ditu, baina horietatik erdiak Gasteizen daude erroldatuta, horrek abantailak dituelako. •

UNA IKASTOLA EN CASTILLA Y LEÓN

Los habitantes de La Puebla de Arganzon sufren, según el presidente de la ikastola Alfredo Angulo, una especie de enfermedad bipolar. Viven mirando a Gasteiz, pero dependen de instancias administrativas de Castilla y León, que se encuentran a más de cien kilómetros de la localidad. Llevaban siete años intentando financiar la ikastola desde la administración vasca, pero ha sido imposible.

“Alguna vez hemos comentado que es más fácil financiar una ikastola en Buenos Aires que en Argantzón”, señaló Alfredo Angulo. Han optado finalmente por acogerse a la administración castellana, que ya ha dado el visto bueno para la legalización del centro y esperan lograr la concertación de dos aulas para el próximo curso.

UNE IKASTOLA EN CASTILLA Y LEÓN

Selon le président de l'ikastola Alfredo Angulo, les habitants de La Puebla de Arganzon souffrent d'une forme de maladie bipolaire. Ils vivent tournés vers Gasteiz mais dépendent des instances administratives de Castilla y León situées pourtant à plus de cent kilomètres de la commune. Cela fait sept ans que l'ikastola essaie d'obtenir des financements de la CAB. En vain. “Il est plus facile de financer une ikastola à Buenos Aires qu'à Argantzón” ironise Alfredo Angulo.

L'ikastola a finalement choisi de recourir à l'administration castillane qui a validé la légalité du centre. L'ikastola espère maintenant obtenir l'accord pour l'ouverture de deux classes l'année prochaine.



“Behin baimena eskuetan edukita, bigarren pausoa bi gelaren kontzertazioa eskatzea da. Pauso hori eman dugu eta maiatza baino lehen etorriko zaigu erantzuna. Urteak eman ditugu finantziario egonkorrik gabe eta arnasbide handia izan liteke hori guretzat”.

“Argantzun herri berezia da. Herriko sarreran dagoen kartelak adierazten duen bezala, Gasteizera 18 kilometro ditu eta Burgosera 94”.





MUNDUARI ITZULIA 10 METROKO BELAONTZIAN

Egoi Urkitzak, Eguzkibegiko ikasle ohiak abenturaren berri kontatu digu

Belaontzi bat, ikasteko gogoia eta ausardia aski izan ditu Egoi Urkitzak, Galdakaoko Eguzkibegi ikastolako ikasle ohiak, bidaiari batek izan dezakeen ametsik handiena betetzeko, munduari itzulia emateko, alegia. Rasyta Varnaite bere neskalguna lagundu dio bidaiari eta honen aitak, Andreus Varnaitek, jarri ditu ontzia eta esperientzia. 2008ko irailaren 7an atera ziren Bermeotik eta itzuli, berriz, iazko ekainaren 27an itzuli ziren. Egoik 30 urte ditu eta ingeniari elektronikoa da. Rasytak 28 urte ditu, lituaniarra da, arkitektoa ikasketaz eta Euskal Herrian bizi da orain. Aitak 58 urte ditu, eta Baltikoa behin eta berriz zeharkaturik zuen abentura honi heldu aurretik. Bi urte horietan 45 herrialde bisitatu dituzte, eta bizi izandako bizipenei buruz galdetu genion Egoiri.

Konta iezaguzu, hasteko, ikastolarekin zer harreman izan duzun. Hiru urterekin hasi nintzen Eguzkibegi ikastolan. Orain 30 urte ditut eta horietatik 11 ikastola horretan eman nituen. Oso oroitzapen onak ditut, eta ederra da noizean behin andereño edo maisuren batekin herriko

kale edo tabernaren batean topo egin eta urte horiek gogoratzea. Koadrilako bazkari edo afarietan beti agertzen dira ikastolako gertakari eta oroitzapenak. Hamaika barre egin dugu, milaka oroitzapen ditugu... Munduari itzulia eman ondoren ere egin genuen bisita bat ikastolara.

Niretzat oso esperientzia ederra izan zen. Oraingo honetan ez nintzen ikasle moduan joan, abentura kontatzera baizik. Nik euskaraz hitz egin nuen eta Rasytak ingelesez.

Non egin zenituen ikasketak? Ingeniaritza Elektronikoa ikasi nuen

Eibarren eta Rasyta, nire neskalguna, Lituaniar ezagutu nuen, bera Arkitektura ikasten ari zela, eta ni, berriz, Erasmus batekin nire karrera bukatzen. Jadanik 7 urte daramatzagu elkarrekin, eta munduari itzulia ematen aritu garen bitartean eguneko 24 orduak eman

ditugu elkarrekin; benetako amets bat bizi izan dugu elkarrekin.

Nola jaio zen munduari itzulia emateko ametsa? Munduari itzulia emateko ametsa aspaldidanik omen zuen Andriusek, Rasytaren aita eta belantziko (Ragaine II) kapitaina denak.



GALDAKAOKO DA EGOI URKITZA, EGUZKI BEGI IKASTOLAN IKASTAKOAK. LITUANIA EZAGUTU ZUEN NESKALAGUNA, RASYTA VARNAITE, ERASMUS PROGRAMAREKIN ELEKTRONIKA INGENIARIATZA IKASKETAK BUKATZEN ARI ZENEAN. 2008KO IRAIL LEAN ABIATU ZIREN BERMEOTIK MUNDUARI ITZULIA EGITEKO. HANIK HILABETE ONDORREN LEKU BERERA ITZULI ZIREN, AMESA BETE ONDORREN.

Rasytak eta biok Suedian geundela jakin genuen bere asmoa egia bihurtzera zihoala. Geu ere animatu egin ginen. Baina ez zen erabaki erraza izan. Ordurako lan eskaintza batzuk bagenituen, eta dena alde batera utzi eta hasi behar izan genuen abentura prestatzen. Zalantzarik handiena bi bideren artean erabakitzea izan zen: egonkortasuna ala abentura?

Esan beharra dago Rasytak eta Andriusek itsasoan urte asko eman dituztela. Rasyta txikitandik ibili da belaontzian eta oso trebea da. Andrius, berriz, zer esanik ez...; oso kapitain ona da.

Kontatu ginetik bada ere egin zenuten ibilbidea, eta zein zati izan den gogorra eta zein zatirik ederrena. Bermeoik irten eta Maroko, Cabo Verde, Barbados, Trinidad eta Tobago, Panama, Galapagos, frantziar Polinesia, Cook Irlak, Fiji, Tonga, Vanuatu, Australia, Indonesia, Malasia, Tailandia, Sri-Lanka, Maldivak, Oman, Yemen, Eritrea, Sudan eta Egipto bisitatu genituen, Mediterraneoetik bueltan Bermeora etortzeko. Zatik gogorra? Gezurra badirudi ere, Mediterraneoan pasatu genuen zatirik gogorra, 140km orduko haize boladekin eta olatu ikusgarriak kontra genituela, Egiptotik Kretara

bidean; bi egunetan 100km baino gehiago egin genituen atzerantz. Beste hainbat momentu gogor izan ditugu, baina Mediterraneoak izan zen gogorra. Zatik ederrena? la bidaia osoa izan zen ederra, baina batzuk aukeratzekotan, Ozeano Barean dauden uharteak, Asiako Hegoaldea eta Eritrea aukeratu nituzke.

Zer aurrekontu zenuten eta zertan gastatzen da dirurik gehiena? Aurrekonturik ez geneukan. Lehenengo 6 hilabeteetan ikusiko zen, gutxi gora behera, zenbat gastatuko genuen. Hilean 800-1000 euro gastatu dugu hiruron artean. Dirurik gehiena 'bisituak' ordaintzen xahutzen da. Gasolioa eta janaria ordaintzen ere dezente behar da, baina ez horrenbeste. Horrez gainera, hainbat herrialdetara sartzeko baimenak eskuratzeko, hauen itsasoetan nabigatzeko baimenak lortzen, kanalak (Panama, Suez...) ordaintzen eta horrelakoetan jotzen da dirurik gehiena.

Zer egiten da ontzi barruan egunean zehar? Nolakoak dira gauak? Itsaso gogorarekin egunak eta gauak oso luzeak izaten

dira. Inork ez du lorik egiten eta beti egon behar duzu erne. Baina egun normaletan denetik egiten da: irakurri, pentsatu, idatzi, jan, lo egin, arrantzan saiatu, itsasoko urdinaz gozatu, belekin jolastu, belaontzia konpondu... Mila gaua izaten dira egiteko. Gauetan beti norbait

gelditzen da kanpoan; gure kasuan lau orduko txandak egiten genituen. Gauetan itsasoaren erdian egotea esperientzia ahaztezina da, magikoa.

Gogorra al da hamar metroko etxe batean bi urtez bizitzea? Zer erakusten du esperientzia horrek? Hasieran beldur handia genion elkarbizitzari..., baina dena erraz eta primeran joan da. Familia guztietan bezala,

batzuetan errietak egon dira, baina ezin hobeto joan da dena. Familia bat izan gara, bakoitzak bere ardura eta betebeharrekin. Hirurok amets bera genuen eta oso jarrera baikorarekin ibili gara.

Bi urte hauetan asko aldatu al zara? Zertan? Gomendatuko al zenieke horrelako esperientzia bat

gazteei? Zein urterekin? Familia, Rasytak edo lagunak erantzun beharko liokete galdera horri, baina lasaia eta positiboagoa bihurtu naizela uste dut. Aberastu egiten zaitu horrelako esperientziak. Gure esperientziak gehiago jakin nahi baduzue, jarri gurekin harremanean helbide honetara idatzita: rasaegoi@gmail.com



GALDAKAOKO EGUZKI BEGI IKASTOLAK BERE LEHEN IBILBIDIA ANTOLATU ZUEN 2009AN. ARAKASTA HANDIKO JAIA IZAN ZEN. 682 IKASLE DITU IKASTOLAK O ETA 16 URTE BITARTEKOAK.

Ikasle ohiek igo dute guraso euskaldunen kopurua

Galdakaoko Eguzkibegi bi lerroko ikastola da. 682 ikasle ditu 0-16 bitartean. "Guk neurria hartua diogu. Eraikina ere bi lerroko ikastola izateko egin zen. *Ikasle kopurua handitzeko aukerak baditugu, baina masifikatzeko arriskua ikusten diogu*", esan zigun **Ana Maza** ikastolako zuzendariak. Eguzkibegitik DBH eginda ateratzen diren ikasle gehienak Durangoko Ibaizabalera joaten dira Batxilergoa egitera. "Galdakaoko jendeak **Bilbora joateko joera du; Ibaizabal ireki zenean gehiago kostatuko zitzaigula uste izan genuen, baina gehienak Ibaizabalera joaten dira. Garraioa dute ikasle horiek kexu bakarra; hori eta klaseak goiz eta arratsalde izatea. Iazko ikasturtetik hogeita hamar pasa joango ziren**", jarraritu zuen Anak. Orain hamabost bat urte jarri zituzten martxan bi urteko gelak eta orain hamar urte 0-1 urtekoak. "Aitzindariak izan ginen. Arriskua hartu genuen eta **oso ondo atera zitzaigun**", gogoratu zuen Anak. Gurasoen herena omen da Galdakaon euskara gutxi edo asko dakiena. Ikastolako gurasoen artean kopuru hori handiagoa izan ohi da, eta orain, ikasle ohiak guraso bihurtzen hasi zirenetik, guraso euskaldunen kopurua handitu egin da. •

LA VUELTA AL MUNDO DE UN EX ALUMNO

Egoi Urkiza es ex alumno de la ikastola Eguzkibegi de Galdakao. Estudió Ingeniería Electrónica en Eibar y conoció mientras hacía el último curso de carrera en Suecia gracias a una beca Erasmus a Rasyta Varnaite, una estudiante de Arquitectura de Lituania, cuyo padre era marinero. Entre los tres fraguaron el proyecto de dar la vuelta al mundo

en un velero de 10 metros de eslora. Salieron de Bermeo el 7 de septiembre de 2008 y volvieron al mismo puerto el 27 de junio de 2010. Egoi y Rasyta, que ahora vive en Euskal Herria, estuvieron en Eguzkibegi relatando la aventura. Egoi ha contestado a nuestras preguntas.

LE TOUR DU MONDE D'UN ANCIEN ÉLÈVE

Egoi Urkiza est un ancien élève de l'ikastola Eguzkibegi de Galdakao. Il a étudié l'ingénierie électronique à Eibar et, alors qu'il faisait des études en Suède par le biais d'Erasmus, a rencontré Rasyta Varnaite, une lituanienne étudiante en architecture dont le père était marin. A eux trois ils ont monté un projet de voyage autour du monde en voilier de 10 mètres de

long. Ils sont partis de Bermeo le 7 septembre 2008 et ont regagné ce même port le 27 juin 2010. Egoi et Rasyta, qui vit désormais au Pays Basque, ont relaté leur périple aux élèves de Eguzkibegi. Egoi répondit à nos questions.



ANOETA ETA IRURA

Elkarri lagunduz indartu diren ikastola bikiak

Kasu bakarra da ikastolen historian. Bi herri eta bi ikastola ezberdin dira, baina bizkiak bezala, elkarri lagunduz hazi dira eta proiektu guztiak elkarrekin partekatuz jarraitzen dute. Bakoitza ikastetxe bakarra izatera iritsi dira bere herrian. Ikasle kopuru aldetik Anoeta izan da nagusi, baina txikien geletan Irura gaina hartzen ari zaio.

Oia ibaiak banatzen ditu Irura eta Anoeta. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina arlo askotan elkarrekin lan egiten ohiitutako herriak dira. Neurri handi batean ikastolak landu du lankidetzaren kultura hori. Anoetako Herri Ikastolako zuzendaria adibide garbia da. Maria Pilar Larrañaga "Masni" Irurakoa da, Anoetako Ikastolako ikasle ohi, Irurako Ikastolako lehendakari izan zen lehen, eta Anoetako zuzendari izaten bukatu du; hori

guztiz gainera, bere bi alabak ere ikastola horretan daude.

"Aurki bi herriak parekatu egingo dira demografia aldetik. Anoetak 1.800 bizilagun ditu, baina Iruran 1.500era gerturatuta gaude eta, aurreikuspenen arabera, asko haz daiteke etorkizunean. Anoetako Herri Ikastola 1969an sortu zen eta Irurakoa zortzi urte geroago, 1977an, baina hasiera beretik izan dugu harreman estua; horren lekuko datu hau: asteen bitan elkartzen ginen

irakasleak. Guk HH bakarrik genuen eta LH egitera Anoetara etortzen ziren. Herriko eskola publikoa ikaslerik gabe geratu, eta 85ean desagertu egin zen", hasi zen gogoratzen Josune Aiestaran, Irurako zuzendari ohi. 2002an jarri zuten LH Iruran, eta DBH egitera etortzen dira gaur Anoetara.

"Gure taldeak handitzen ari ziren, eta bi ikastoleetako guraso batzordeak eta bi udalak lanean hasi ziren LH Iruran jarri ahal izateko. Siadecori

ikerketak bat agindu zitzaion, eta emaitzekin erabat harrিতuta geratu ginen, herriaren hazkunde azkarra iragartzen baitzuen. Aurreikuspen horiek betetzen ari dira. Aurten 2 urteko gelarako 37 ume ditugu eta 41 izan litezke datorren urtean. 2008an inauguratu genuen ikastola berria eta dena beteta dugu. Plazako eraikuntza eta sendagilearen etxea okupatzen jarraitzen dugu", jarraitu zuen Josunek.

Irurak 184 ikasle ditu eta Anoetak 321. "Guk 2

urteetik 16ra bitartekoak ditugu. Irurako Ikastolako ikasle guztiak Anoetara etortzen dira DBH egitera, eta ondoren, hauetako asko Tolosako Laskorainera joaten dira", esan zuen Masni Larrañagak, Anoetako zuzendariak.

IRAKASLEAK PARTEKATUZ

Ikastolen Elkartetik bultzatu diren proiektuak aurrera eramanez, ez dute elkar hartzea beste biderik izan. "Irurako ikastola txikiagoa zenean, irakasle batzuk partekatu ere egiten genituen, Eleanitz proiektuan esate baterako. Musikan, soinetan eta beste zenbait arlotan ere irakasleak partekatu izan ditugu", erantsi zuen Masnik.

Irteerak ere bi ikastolen artean antolatzen dituzte. "Elkarrekin ez dira ikasbidaia bakarrik antolatzen. Bi urterekin hasten gara elkarrekin ateratzen. Donostiako Aquariumera, Iruñeko Planetariuma, Azpeitiko Tren Museora...



XABIER SAIZAR,
IRURA IKASTOLAKO
ZUZENDARIA,
JOSUNE
AIESTARAN,
ZUZENDARI OHIA
ETA MASNI
LARENAIGA,
ANOETAKO,
PATIÖAN IKASLEZ
INGURATUTA. BI
IKASTOLAK, ANAIA-
ARREBAK BEZALA,
ELKARRI
LAGUNDUZ HAZI
DIRA, ETA
PROIEKTU GUZTIAK
PARTEKATUZ
JARRAITZEN DÜTE.

egiten ditugun gisa horretako irteerez ari naiz. Arazoak orain sortu zaizkigu ikasle kopuruak handitu direlako, baina urtetan gauza asko elkarrekin egin ditugu. DBH egitera Iruratik Anoetara etortzen direnean, ikasleek jada elkar ezagutzen dute. Horregatik beharbada hemen koadrilak ere bi herrien artekoak dira neurri handi batean”, jarraitu zuen Xabier Saizar Irurako zuzendariak.

Lankidetzeta hau arlo guztietara eraman dute eta 2003an Zilarrezko Q atera zutenean ere, elkarrekin eraman zuten prozesu osoa.

Hizpro, Agenda 21, Eleanitz, Bizikidetzeta...; proiektu bakoitzeko egutegi bat dute irakasleak elkartzeko. “Oso aberatsa izan da. Gu hain ikastola txikia izanik, ez ginatekeen gai izango geure kabuz proiektu hauetan guztietan sartzeko. Ikastola handi batek eskaintzen dituen zerbitzuak eskaini izan ditugu, ikastola txiki bat izanik. Kilometroak ere lankidetzeta horri esker antolatu genituen Iruran”, gogoratu zuen Josunek.

Anoetako Ikastolako zuzendaritzak astero egiten duen bilerara ere Xabier Saizar, Irurako zuzendaria, etortzen da.

Garraiorik ba al dago bi ikastolen artean? LH



“Lankidetzeta hau arlo guztietara eraman dute eta 2003an Zilarrezko Q atera zutenean ere, elkarrekin eraman zuten prozesu osoa”.

“2008an inauguratu genuen ikastola berria eta dena beteta dugu. Plazako eraikuntza eta sendagilearen etxea okupatzen jarraitzen dugu”.

egitera Anoetara zetozeanean bai, baina ziklo hori Iruran jarri zutenean kendu egin zuten zerbitzua. “DBH egitera datozenek 12 urte dituzte gutxienez.

Kilometro bat bakarrik dago batetik bestera eta, gainera, harremanak egiteko ere ondo etortzen zaie. Elkartzeko guneak dituzte etortzerakoan eta gauza bera joaterakoan. Etortzerakoan gurasoen

kontra hizketan etorriko dira seguru asko eta joaterakoan irakasleen kontra”, esan zuen umorez Josunek.

Iruran Tolosa inguruko jendea jarri da biziitzen.

“Irurako biztanleria asko hazi da hamar urte hauetan, Tolosa inguruko gazte asko etorri baita bertara bizitzera. Aldiz, Anoetan biztanleriaren hazkundea nahikoa geldirik

dago, eta horrek ezaugarri oso ezberdinak ematen dizkie herri bati zein besteari”, esan zuen Xabier Saizarrek.

Lankidetzeta hau gorabehera, bi ikastolak ezberdinak dira, baita kokagunez eta paisaiatz ere. Irurakoa industrigune baten ertzean dago; Anoetakoa, aldiz, zelai berdeen artean. Inguruan negutegi erraldoi bat ere badu. •

DBHEN ELKARTZEN DIRA IKASLE GUZTIAK ANOETAKO IKASTOLAN, KILOMETRO BATEKO ALDEA BAINO EZ BAITAGO BI HERRIEN ARTEAN. HARREMANAK ESTUTZEKO ZEIN AUKERA ZORAGARRIA!

IKASTOLAS QUE SE COMPLEMENTAN

Es probablemente un caso único en la historia de las ikastolas. Los centros de Irura y Anoeta han logrado salir adelante gracias a una colaboración entre profesores y padres de ambas localidades. La de Irura fue una ikastola pequeña que buscó cobijo a la sombra de la de Anoeta, pero el crecimiento de la primera localidad tiende a igualar el número de alumnos. “Esta colaboración ha estado dictada en parte por la

necesidad. Siendo unas ikastolas pequeñas y con recursos limitados, no habiéramos podido hacer frente a las exigencias de los proyectos pedagógicos si habiéramos actuado separadamente”, manifestaron los directores de ambos centros. Han trabajado de forma conjunta para lograr la Q de Plata, por ejemplo, y llegan a coordinar desde las excursiones hasta los programas festivos de los carnavales.

COLLABORATION ENTRE IKASTOLA

C'est un cas unique dans l'histoire des ikastola. Les centres de Irura et Anoeta ont réussi à s'en sortir grâce à la collaboration entre enseignants et parents des deux localités. L'ikastola d'Irura était une petite ikastola mais par l'accroissement démographique de sa commune elle avait presque atteint la taille de celle d'Anoeta. “Ce travail de collaboration a répondu à une nécessité. Etant deux petites ikastola aux ressources

limitées, nous n'aurions pas pu faire face aux exigences des projets pédagogiques si nous avions continué à être indépendantes l'une de l'autre” selon les directeurs des deux centres. Les ikastola ont par exemple mené un travail en commun pour obtenir le Q d'Argent. Elles développent un partenariat allant des sorties scolaires à la programmation des festivités du carnaval.



GARBERA
ARRASATE

-70% en la 2ª unidad
-70% 2. unitatean
tas. 10.000 menor importe

MEDIAS Y CALCETINES
HOMBRE, MUJER, NIÑO Y BEBE
Combinálas como quieras

i parral dea:

EPERRA IKASTOLAK, 105 IKASLE

Hilabete barru abiatuko dituzte ikastola handitzeko lanak

Zubereraz hitz egiten duten bi ikastola daude munduan: ama-ikastola bat Alozen eta Eperra ikastola Sohütan, Maule ondoan. Haur Hezkuntza eta Lehen Maila dituzte bertan. Ehun ikasleren muga gainditu berri dute eta ikastola ondoan zegoen eraikina erosi diote Herriko Etxeari. Hilabete barru hasi nahi dituzte lanak.

1997an erosi zuen Eperra ikastolak gaur Sohütan duen egoitza. Euskal Herri osotik etorritako laguntzari esker berriro zituzten gurasoek gelak. Leku ederra eta lasaia da. Jolastoki handi bat du aurrean eta herriko frontoia gertu, kirola egiteko. Iaz eraikin txiki bat erantsi zioten etxeari, baina ez dute nahikoa leku, 105 ikasletara iritsi baitira. "Azken hiru urteotan gorakada txiki bat izan

dugu eta 111 ikasletara iritsiko gara ikasturte hau bukatzerako", hasi zen kontatzen Jean Bordaxar, ikastolako lehendakaria.

Ikasle horietako batzuk urrutiko herrietatik etortzen dira, esate baterako, Basaburuko herrietatik batzuk, eta bada bat Larrainetik datorrena ere.

"Luzaz izan gara 60 eta 70 ikasleren artean eta badira hiru urte goraka hasi ginela. Guk 105 ikasle ditugu

eta Alozen 22 dituztela uste dut. Hasieran gure guraso guztiak euskaltzale ezagunen seme-alabak ziren. Orain denetik dugu, gero eta erdaldun gehiago. Asko umetan euskara galdutakoak dira eta berriro seme-alabei euskara eman nahi dietenak. Belaunaldi bateko etena izan du euskarak. Gure ikasleen aitona-amonek bazekiten, gurasoek ez, baina umeei erakusten saiatzen dira",

esan zuen Annie Ager ikastolako zuzendariak.

Ikastola ondoan zegoen eraikina erosi diote Udalarari. Biltegi bezala erabiltzen zuten eta barruan gelak eraikiko dituzte. *"Milioi bat eurotara iristeko arriskua dugu, baina ahalegin guztiak egingo ditugu diru kopuru hori gutxitzeko. Gure helburua lanak 750.000 euroekin bukatzea litzateke",* erantsi zuen

lehendakariak, Jean Bordaxarrek.

GELAN ZUBERERAZ

Ez dira ikastolak bakarrik. AEKn eta eskola elebidunetan ere zuberera lantzen ari dira. *"Guk Hegoaldeko material didaktikoa eta frantsesezkoa baliatzen dugu, baina zubereraz jartzen dugu. Zortzi edo bederatzirterera arte fitxa guztiak zubereraz*

JEAN BORDAXAR: SOHÛTAKO EPERRA IKASTOLAKO LEHENDAKARIA. IKASTOLAKO ATARIAN. AZKENKO HIRU URTEOTAN IKASTOLAKO UME KOPURUA HANDITZEN ETA HANDITZEN DOA, 105 IKASLEERA IRISTERAINO.



jartzan ditugu eta ahoz erabiltzen dugun euskalkia ere gurea da. Liburuak, noski, beren horretan uzten ditugu, nahiz eta orain ikas hasi den liburu batzuk gure euskalkian argitaratzen”, jarraitu zuen Annie Agerrek.

Irakasleentzat lan gehigarri bat ekartzen du euskalkira egokitu behar honek. “Gure irakasle gehienak zuberotarrak dira, eta zubereraz hitz egiteaz gainera hitanoa erabiltzen saiatzen gara. Hala mintzatzen gara mutilekin;

neskekin ez, ordea, nahiz eta nire herrian, Barkoxen, esate baterako, neskekin ere noka erabiltzen den. Ni ikastolan hasi nintzelarik bitxia atzematen nuen neskei zuka egitea. Gure etxean zuka bakarrik aitona-amonekin egiten genuen.

Amari nik noka hitz egiten nion. Barkoxe eta Eskiulako ohitura da hori. Edozein modutara ere, mutilekin toka hitz egiten da leku gehienean eta ikastolan ere hala egiten dugu”, jarraitu zuen Anniek.

Jean Bordaxarrek zortzi urte eman zituen diruzain ikastolan, eta laugarren urtea du ikasolako gurasoen Habia elkarteko lehendakari. Batzordean sei guraso dira, guztiak euskaldunak. Bilerak euskaraz egiten dituzte. Horietatik bi ikasle ohiak dira.

Jean Bordaxar nekazaritzako teknikaria da eta Pauben egiten du lan. Aurten Larrainen emango den pastorala, Telesforo Monzoni buruzkoa, berak idatzia da, eta datorren urtean emango den Mendiage bertsolariari buruzkoa ere bera ari da idazten. Zuberoko kantagintza landu izan du betidanik eta 98az gero laukote bat du. Euskal Herri osoan ibili dira. •



Zortzi eta bederatzita urtera arte ikastolako fitxa guztiak züberara egokitzen dituzte, ahoz erabiltzen duten euskalkia zinez zaintzeko asmoz.

AURTEN MASKARADA

Kantua asko lantzen dute ikastolan. Zuberoko Kantu Txapelketan parte hartzekotan dira aurten bertako ikasleak. “Dantza bederen hemen ez da galtzen, eta kantuak ere badu indarra. Euskararik ez badakite ere pastoralean parte hartzen dute, dantzan egiten dute, eta kantuan ere bai. Herri txikietan ere indartzen ari direla ikusten dut dantza eta kantua”, jarraitu zuen Anniek.



EPERRA IKASTOLAKO IKASLE GEHIENAK ZUBEROTARRAK DIRA. KANTU TXAPELKETAN PARTE HARTZEKOAK DIRA AURTEN. ETA DANTZAN ERE SAIAITUAK DIRA. HERRI TXIKIETAN KANTUA ZEIN DANTZA INDARTZEN ARI DIRELA ADIERAZI DIGUTE ELKARRIZKETAN.

Ikasle ohien ikuskizuna

Hemezortzi urtez gorako Zuberoko ikastoletako ikasle ohiak ekitaldia eman zuten abenduaren 11an Mauleko Jai Alai pilotalekuan. “Olaz ola... ikas” izeneko ikuskizun horretan Zuberoko ikastolen 40 urteko historia kontatu zuten, eta protagonismo berezia izan zuten, noski, bertako lehen andereñoek, Margarita Recaltek bereziki. “Iazko udaberrian sortu genuen XIIO (Xuberoko ikastolako ikasle ohiak) elkarte; udan talde txikiak antolatuta genituen antzerkia, kantua,

dantza, bertsoa, filmak eta argazkia lantzeko, eta astero bilerak eginez muntatu genuen ikuskizuna. 900 bat lagun bildu ziren pilotalekuan”, esan zigun Maite Davant elkarteko idazkariak. Ikusgarri hau otsailaren 27an Luhuson errepikatu zuten Xalbador kolegioren alde, eta elkartearen asmoa ikasleen arteko harremanak sendotu eta tarteka animazio lanen batzuk egiten jarraitzea da. “Ekainean, Zuberokoan euskararen alde lan egiten duten elkarte eta

erakundeek Euskararen Eguna ospatu ohi dute, eta elkarte gisa parte hartzeko asmoa dugu”, erantsi zuen Maitek. Sohütako eta Alozeko ikastoletatik pasatutako ikasleek osatzen dute elkarte. “Maritxu Lacarrieux-k eta biok abiatu genuen elkarte. 200 bat ikasle ohiren zerrenda egin genuen, eta posta elektronikoz eta facebook bidez jarri ginen eurekin harremanetan. Orain zazpi laguneko talde batek koordinatzen ditu lanak”, esan zuen. •

LAS IKASTOLAS CRECEN TAMBIÉN EN ZUBEROA

La ikastola Eperra de Sohüta, cerca de Maule, ha superado la barrera de los 100 alumnos y están a punto de iniciar las obras que servirán para ampliar las instalaciones, tras la compra de un edificio adosado que utilizaba el Ayuntamiento de la localidad. Hay dos ikastolas en Zuberoko: Eperra imparte los ciclos

de Infantil y Primaria y Aloze el primer ciclo de Infantil. Eperra ha sido pionera en la utilización del dialecto suletino en la enseñanza. Trabajan también la tradición cultura del herrialde. Este año, sus alumnos participarán en la Kantu Txapelketa y los mayores han preparado una mascarada.

DÉVELOPPEMENT DES IKASTOLA SOULETINES

L'ikastola Eperra de Sohüta (Chéraute) compte désormais plus de 100 élèves et est sur le point d'entamer des travaux d'agrandissement suite à l'acquisition d'un bâtiment qu'utilisait auparavant la mairie. La Soule compte deux ikastola: Eperra (Maternelle et Primaire) et Aloze (Maternelle).

Eperra a été la première ikastola à utiliser le dialecte souletin dans son enseignement. Elle transmet également la tradition culturelle souletine. Cette année, les élèves participeront au Kantu Txapelketa et les plus âgés prépareront une mascarade.

nafarroa:



ikastola

horrelakoak gara...

IKASTOLA, NOLA AZALDU

Etxarri eta Altsasuko ikastolek hiru urterako komunikazio plana landu dute

Etxarri eta Altsasuko kaleetan kartel deigarri batzuk agertu ziren matrikulazio kanpainaren hasieran: ikasle ohien argazki bat ikus zitekeen kartel bakoitzean, eta ondoan txikitako oroitzapen goxo bat idatzirik. Zer esana eman zuten kartel horiek herrian, ikastolarenak zirela argitu zen arte. Bi ikastolek landu duten komunikazio planaren baitako ekintza bat baino ez zen sorpresa hori.

Hezkuntza ereduari buruzko halako nahasketa bat sortu da gaur egun gizartean. Ez al dute bada gauza bera eskaintzen ikastolan eta eskola publikoan? galdetzen dute. Horregatik gure proiektuaren ezaugarri propioak (euskara eta euskal kultura, lurraldetasuna, izaera soziala,...) argi azaldu eta sozializatu behar ditugula eta, joan den ikasturtean Etxarriko Andra Mari ikastolako arduradunekin batera hiru urteko komunikazio plan bat lantzen hasi ginen”, hasi

zitzaigun **Jone Areta**, Txioka Haur Ikastolako zuzendaria.

Komunikazio plan hori 30 bat orrialdeko txosten batean dute bildurik, eta bertan bailara osoko diagnostikoa egiten da (alderdi sendoak eta alderdi ahulak seinalatuz), helburuak markatzen dira, eta erabil daitezkeen baliabideak zehazten. Bi ikastoletan irakasle eta gurasoei galdeketa bat egin zitzaion diagnostikoa osatu ahal izateko eta Altsasun, bestalde, soziologo baten lana oinarri hartu dute gizarteak ikastolari buruz duen irudia aztertzeko.

“Joan den ikasturteko matrikulazio garaian erabaki genuen Sakanako ikastolen komunikazio plan hau lantzen hastea. Kanpaina hori bakoitzak bere aldetik egiten genuen, eta orain ekintza bateratuak egiten hasi gara, izan ere, elkarlana ikastolen ezaugarrietako bat izanik, hau praktikan jarri nahi izan dugu, indarrak bilduz eta batera lan eginez”, esan zuen **Adur Goikoetxeak**, Etxarri Aranzeko ikastolako zuzendari pedagogikoak.

Kanpainarako erabili dituzten kartelek sortu dute

zer esanik Sakanako herri guztietan. “Ikasle ohiei bilera baterako deialdia egin, eta bertan gure asmoa azaldu genien. Horrez gainera, hori aurrera eramateko beraien partaidetza eskatu genien. ‘Oraindik ez ditut ahaztu urte haietan ikasitako abestiak. Egun alabak abesten ditu’, idatzi zuen batek; edo ‘Autobusean lehen aldiz igo eta bidean urduritasuna eta poza sentitu nituela dut gogoan’; edo, ‘Gure hizkuntza, nortasuna eta herria maitatzen ikasi nuen garai

hartan’ beste batek. Esaldi horiek ikasle ohien argazkiak lagun zituztela agertzen ziren kartelean, baina ikastola hitza aipatu gabe. Kartel horien inguruan halako jakin-min bat piztu zen, astebetera edo beste kartel batzuen bidez ikastolaren kanpaina zela argitu zen arte”, jarraitu zuen **Esther Garaialdek**, Iñigo Aritzako zuzendariak.

Komunikazio planak bi lan ildo ditu: alde batetik, barrura begira egingo dute lan, arau nagusienetako bat barruko partaideen fidelotasuna lantzea baita.

BANATU DIREN IKASLE OHIEN KARTELAK, ARGAZKIAK ETA ZENBAIT OROITZAPEN HONEKIN BATERA. IKASTOLAN OSO GUSTURA IBILI ZIRELA IKUS ETA IRAKUR DEZAGEGU. BAITA FAMILIA HANDIAREN PARTAIDE SENTITU ERE. NOLA EZ, BADA, MAITATU IKASTOLA? ESKUMAKO ORRIALDEAN TXIOKA HAUR IKASTOLAKO HAINBAT ARGAZKI. 2005KO INAFARROA OINEZ-ARI ESKER JASOTAKO ERAIKUNTZA IKUSGARRIA DUGU HAU. ETXARRIN ANDRA MARI IKASTOLA BERRIA ERAIKITZEN HASIKO DIRELA ESPERO DUTE.



“Hezkuntza marketinari buruzko ikastaro bat egin genuen Estherrek eta biok; gerturatu eta jakin egin nahi genuen. Bertan, irakasleak oso garbi erakutsi zigun baliabide aldetik baliotsua dela geure bezeroen fidelitasuna lantzea, gurasoa gustura badago, proiektuan sinesten badu, ikastolari buruz baikor hitz egiten badu, familia berriak erakarriko dituelako. Horretan ari gara gogoz barruko baliabideak erabiliz, hala nola, ikastolako web orria eta blogak sortzen, bilerak eta hitzaldiak partekatzen, ikastola bakoitzak egin duen DVDA edo gure argitalpenak erakusten, eta abar. Txiokan, esate baterako,

facebook bat ireki dugu. Tresna berriak erabiltzen saiatzen ari gara. Baina kanpora begira ere lan egin behar dugu, eta gure eredu gizarteratzeko eman beharreko pausoak ere zehazten dira txostenean, hartzaileak identifikatzen dira eta ekintzak proposatzen. Ekintza horietako batzuk aipatzearren, eraikinak ezagutarazteko bisitak antolatu ditugu (geurea den hori bertatik ikusteko, gozatzeko, ezagutzeko eta maitatzeko), edo ikasleen lanen erakusketak programatu dira herrian. Hartzaileak identifikatzeko orduan, badakigu talderik garrantzitsuena 25-40 urte bitarteko jendea dela, eta

batez ere emakumea. Horregatik talde horren gustuak eta ezaugarriak ezagutu ahal izateko bideak jarri nahi ditugu, horiek izango baitira ondoren gure gurasoak”, jarraitu zuen Jone Aretak. Ekintza horietako batzuk hurbilak bezain eraginkorrak dira. “Aurten, esate baterako, Eguberriak zoriontzeko txartel bana bidali genuen Sakanako etxe guztietara, jostailuak erosteko garaian gogoan izan beharreko hainbat aholku edo gomendio azalduz. Hori izan zen komunikazio plana abian jarri zuen lehen ekintza”, erantsi zuen Esther Garaialdek. Komunikazio plana NIEn eta Ikastolen Elkartearen

aurkeztu zuten, eta ondoren klaustroetan eta gurasoen batzordeetan. Andra Mariko arduradunek esan zigitenez, Etxarriko eraikin berriko proiektuari azken ukituak

bidartzen ari dira, eta maileguak lortzeko pausoak ematen. “Hilabete batzuk barru lanekin hasiko garaile espero dugu”, esan zuen Itziar Begiristain, zuzendari administratiboak.



EZKERRETIK HASITA, ITZIAR BEGIRISTAIN (ANDRA MARI IKASTOLAKO ZUZENDARI ADMINISTRATIBOA), ESTHER GARAIALDE (IÑIGO ARITZAKO ZUZENDARIA), JONE ARETA (TXIOKAKO) ETA ADUR GOIKOTXEA (ANDRA MARIKO ZUZENDARI PEDAGOGIKOA).

LAS IKASTOLAS SE APUNTAN AL MARKETING

Las ikastolas de Sakana, Andra Mari de Etxarri Aranatz e Iñigo Aritza y Txioka de Altsasu, han elaborado un plan de comunicación con vistas a socializar mejor el modelo de enseñanza que propugnan. Es la primera vez que dos ikastolas aúnan sus fuerzas para elaborar un plan detallado que pretende “fidelizar” a los clientes actuales, así como proyectar un perfil más adecuado a la realidad de su entorno. Una de las

primeras actuaciones promovidas por el plan ha sido la publicación de carteles en los que ex alumnos de ambos centros referían en una frase un recuerdo de niños junto a una foto, pero sin hacer referencia a la ikastola. La publicación de los carteles provocó expectación en ambas localidades, hasta que en una segunda remesa de carteles se aclaraba que eran felices ex alumnos de la ikastola.

LES IKASTOLA SE METTENT AU MARKETING

Les ikastola Sakana et Andra Mari d'Etxarri Aranatz et Iñigo Aritza et Txioka d'Altsasu ont élaboré un plan de communication visant à mieux sociabiliser le modèle ikastola. C'est la première fois que deux ikastola unissent leurs efforts pour élaborer un plan détaillé prétendant “fidéliser” les parents actuels et mieux cerner la réalité environnementale. Une des premières mesures a été la publication

d'affiches sur lesquelles d'anciens élèves font référence à une phrase rappelant un souvenir, avec photo à l'appui, mais sans faire mention de l'ikastola. La publication des affiches a suscité beaucoup de curiosité dans chacune des localités. Le deuxième affichage annonçant que ces jeunes heureux étaient anciens élèves de l'ikastola a dévoilé le fin mot de l'histoire.



Deusto



Etor zaitez gu ezagutzera

Ateak Zabaltzeko Larunbatak

Martxoak 26 • Maiatzak 7



Informazioa Donostiako campusa
☎ 943 326 308
infoacad@deusto.es

Informazioa Bilboko campusa
☎ 94 413 93 86
nuevosestudiantes@deusto.es

www.deusto.es

tuenti